


# XABIER ORMAZABAL MENDI-FESTA

AUTOREAK



Iker Pou: Gorazde Lertxundi

Pyrenaica aldizkaria ren emakidei o taldoko kidea.



Andoni Ormaizabal: Aritzagi

Xabierren anula, mendizale eta eskalatzailea. Honezgai gain, estatu mailan emeritentzako fisioterapeuta euskal eskalada selekzioa fisioterapeuta moduan dihanu 15 urte baino gehiago.

**Mendizalearen ibilbidea eredutzat hartu eta oroitzapena bizirik mantentzeko, familiak "Xabier Ormaizabal mendi-festa" antolatu ohi du**

2004. urtean zenu zen Xabier Ormaizabal mendizale urretxuarrak, 23 urte zituelarik. Cho-oyu mendian. Zuen adinerako, ibilbide oparoa zuen; Ande eta Alpeetan hainbat gailur erdiestea gain, Elumetako Lehoinabarra titulua lortu zuen: Batasun soibetikoaren bost mendi altuenak igotzeagatik eman ohi den titulua.

Xabierrek Takolo bekaren bitartez laguntza jaso zuen. Batasun soibetikoaren proiektua gauzatzeko, eta laguntza hari esker ona adierazi ohi zion. Haren mendizale-ibilbidea eredutzat hartu eta oroitzapena bizirik mantentzeko, mendizalearen familiak Xabier Ormaizabal beka eta mendi festa sortu zuen 2016. urtean, Urrebuuko udalaren laguntzaz.

Maiztzen 28an, hirugarren urteurrena ospatu zen, eta Maialen Rojo gasteiztarrentzat izandakoa. Auten ere, beka ematearekin bat festa antolatu eta gerturaturiko jendeak ikusiduzunaz gozatzeko parada izan zuen; kalean atonduriko eskalada-egitura ikusgarien, txikienek eskalada frogatzeko aukera izan zuten; trebatuenentzat berriz, boulder erronkak izan ziren.

**Izen handiko mendizale eta eskalatzaileak izan ziren festan, bai eskalatzen, zein ikusle moduan, eta giro aparta bizi izan zen**

Esker-esku: Patxi Usobiaga, Alberto Ithurralde, Marc Toralles, Enako Cesar, Enako Pou, Mikel Zubala, Gorka Karapeto, David Carretero, Iker Pou eta Uria Mendiola - ALIZKOK: PONTIKOAK



Erronkako partehartzaileak, Andoni Ormaizabal erdian dagoela - ALIZKOK: PONTIKOAK



Mendi-festara hurbiduriko jendetza - ALIZKOK: PONTIKOAK

Ondoren, baxkari herrikoia ospatu ostean, erronka nagusia etorri zen: Euskal Mendi Federazioko selekzioko gazteenak, izen handiko eskalatzaileen aurka aritu ziren (Iker Pou, Patxi Usobiaga, Gorka Karapeto, Esther Cruz, Leire Agirre eta Ane Hernan). Ikusleen artean ere izen handiko mendizale eta eskalatzaileak bildu ziren. Festa giroari ukitu berezia eman zioten Alex Txikonek eta Josean Mula sek, estatari lanak eginez. Amaitzeko, iluntzean, entzute handiko zenbait proiektu leusteko aukera izan zen.

Lerro hauen bitartez, antolatzaileek parte hartu zuten erakunde eta hainbat boluntarioi eskerak eman nahi dizkiete, halie i esker ez baitzen posible izango giro ezin hobean ospaturiko festa. Eskenrik asko bihotzez!

